

OINARRIZKO IKASTAROA KAZETARI ETA KOMUNIKATZAILEENTZAT

GARAPENARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA: NAZIOARTEKO AGENDA ETA HAREN TOKIAN TOKIKO ERAGINA

PROGRAMA

Ikastaroak sei modulu ditu, irakurketa teorikoak ariketa praktikoekin eta sareko foroetako eztabaidekin bateratzen dituztenak. Sei moduluak 15 bat ordutan egiteko daude diseinatuta. Azken lanak 5 ordu gehiago eskatuko ditu. Lan hori kazetaritzako testu bat egitea izango da. Gaia 2. modulutik ikastaroa amaitu arte hautatu eta landuko da, ikasitakoa praktikan jarrita.

- 1. 1. modula. Garapen-istorioak: irakurri, entzun, ikusi eta aztertzea (2 ordu)**
 - a. Garapenarekin zerikusia duten gaiei buruz (pobrezia, hezkuntza, justizia, berdintasuna, etab.), kazetaritza-lan bat irakurri, entzun edo ikustea.
 - b. Foroetan proposatutako materialak aztertu eta eztabaidatzea.

- 2. 2. modula. Garapenaren gaia aurkeztea: oinarrizko kontzeptuak, hobeto kontatzeko (3 ordu)**
 - a. Zer da garapena nazioarteko agendan? Jatorria, historia eta bilakaera.
 - b. Oinarrizko kontzeptuak: giza eskubideak, pobrezia, generoa, iraunkortasuna, etab.
 - c. Informazio-baliabideak kazetari eta komunikatzaileentzat.

- 3. 3. modula. Milurtekoko Garapen Helburuetatik (MGH) 2015 osteko agendara (3 ordu)**
 - a. MGHk 2015erako: jatorria, bilakaera, eragileak, lorpenak eta erronkak.
 - b. Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) 2015 ostean: lantzeko prozesua, eztabaidak eta erronkak.
 - c. Garapenaren kontakizuna: globaletik tokikora eta tokikotik globalera
 - d. Informazio-baliabideak kazetari eta komunikatzaileentzat.

- 4. 4. modula. Garapenari buruz informazioa ematea (3 ordu)**
 - a. Hitzaren indarra: nazioarteko garapenaren lengoia (batzuetan) ulertezinetik kazteritza-lengoaiara.
 - b. Garapenaren iturriak: hasi Gobernutik eta GKEetara, hasi espezialistetik eta gizarte zibilera, pertsonak beti ardatz direla.
 - c. Gidak eta gomendioak kazetari eta komunikatzaileentzat.

- 5. 5. modula. Genero-ikuspegia informazioa lantzean (2 ordu)**
 - a. Informazioa genero-ikuspegiak ematea: ikuspegiak eta lengoaiak badute garrantzia
 - b. Gidak eta gomendioak kazetari eta komunikatzaileentzat.

6. 6. modulua. Komunikazioa eta informazioa: garapen iraunkorraren helburuak (2 ordu)

- a. Komunikazioa eta informazioa garapen-helburu dira berez?
- b. Adierazpen-askatasunaren eta informazioa eskura izatearen eskubidea

7. Azken lana: Parte hartzen dutenek **kazetaritza-testu bat** (albisteak, erreportaia, kronika, elkarrizketa, profila, etab.) idatzi beharko dute garapen iraunkorraren helburuen inguruko gai bati buruz. Testuak 500-1.000 hitzeko luzera eduki behar du. Ariketa “lau eskuez” egin ahal izango da (bi pertsona, bata Estatu espainolekoa eta bestea Latinoamerikakoa), horrela Iparra-Hegoa erlazioa eta interdependentzia islatuko baita. Berariazko foro bat jarriko da martxan, proiektu-lankidea aurkitu nahi dutenentzat. **Azken lanak UNESCO-Etxearen web-orrian argitaratuko dira.** Testuak beste hedabide batzuetan ere argitaratu ahal izatea espero dugu.

IKASLEEN EBALUAZIOA:

Ikastaroa gaintzeko, partaide bakoitzak zati praktikoa bukatu beharko du modulu bakoitza amaitzean. Era berean, maiatzaren 10a baino lehen aurkeztu beharko du lana.

1. **Galdera-sorta:** Modulu batzuek galdera-sorta ireki edo test moduko bat daukate, derrigorrez bete beharrekoa.
2. **Eztabaida-foroak:** Foroetan parte hartzea balioetsiko da. Derrigorrezkoa izango da gutxienez 1. eta 5. moduluko foroan parte hartzea.
3. **Azken lana:** Azken lana 2015eko maiatzaren 10a baino lehen entregatu beharko da. Ez da ondoren ekarritako lanik onartuko. Partaide edo talde bakoitzak bere lanari buruzko azken iruzkinak 2015eko maiatzaren 31a baino lehen jasoko ditu.

IKASTAROA EBALUATZEA:

Ikastaroa bukatzean, ebaluatzeko galdera-sorta bat beteko duzue ikastaroaren egitura, edukiak eta abarrei buruz duzuen iritzia jakiteko.

EGIAZTAGIRIA:

Galdera-sortak gaintu, foroetan parte hartu eta azken lana aurkezten duten pertsona guztiek ikastaroa egin izanaren egiaztigiri bat jasoko dute.

GAINERA, formakuntza hau gaintzen dutenek UNESCO Etxeak eskaintzen duen beka eskatu ahal izango dute New Yorken 2015 osteko Agendari buruzko NBERen Goi Bileran parte hartzeko, irailean ospaturako dena.